



GUITRANS

Trafiko-buruzagitzen gabeziek eragin larria izaten jarraitzen dute garraioaren sektorean

Lehendik datorren kontua da. Joan den azaroaren 3an komunikabideetan azaldu genuen Gipuzkoako enpresak arazo larriak izaten ari direla, Gipuzkoako Trafikoko Buruzagitzan egiten diren izapideen iraupena luzatu egin delako. Buruzagitza honek jasaten duen langile faltak eragindako arazoa plataforma telematiko baten bidez konpontzen saiatzen ari dira, erabiltzaileek beren elkarteen bidez izapideak egin ahal izan ditzaten. Plataforma hori nahitaezkoa da urtarrilaren 10etik aurrera.

Eta hor kaosa areagotzen da. Irtenbide bat izan beharrean, arazo handi bat bihurtzen da. Urtarrilaren 10ean martxan jarritako "pretrámite" sistema benetako hondamendia izaten ari da; izan ere, erabilera-protokoloa ez dago argi, eta funtzionalitate guztiak ere ez daude eskuragarri. Aurretiko inolako informaziorik gabeko sistema bat jarri da martxan, eta horrek geroko kudeaketaren denborak luzatzen dituzten dokumentazio-eskakizun batzuk sortzen ditu,

Izan ere, joan den urtarrilaren 10etik, GUITRANSeko Gestio Departamentuak ezin izan du hasitako izapide bakar bat ere amaitu. Galera ekonomikoak handiak dira eragindako enpresentzat; izan ere, kamioi bat martxan jarri ezin den egun bakoitzak gastu finko batzuk sortzen ditu, lehenengo minututik aurrera.

Ezin da konponbide bat abiarazi aldez aurreko inolako prestakuntzarik edo aurreikuspenik gabe, inork konpontzen ez dakien arazoak sortzen baititu. Une honetan, Gipuzkoako garraio-sektorea arratoi-zulo batean dago, eta ezin da bertatik irten.

Egoera hori jasanezina denez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari irtenbide bat eskatzen diogu, bai erabiltzaileentzat, bai Trafikoko Buruzagitzako langileentzat, sektorearen arratoi-zulo berean baitaude.